

Iraunkortasun Plana 2015



Lege-oharra 2	2
Erantzukizun korporatiboaren ikuspegia eta Plan hau egitea	3
Alderdi interesdunen itxaropenak eta planean dagozkien ekintzak	6
● Programa 1: Erakundearen gobernamentua	6
● Programa 2: Giza eskubideak	9
● Programa 3: Lan-jarduerak	11
● Programa 4: Segurtasuna	14
● Programa 5: Ingurumena	21
● Programa 6: Bidezko jardunbideak: Ustelkeriaren kontra eta etika	32
● Programa 7: Bidezko jardunbideak: Balio-katea	34
● Programa 8: Kontsumitzaileen gaiak	36
● Programa 9: Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena	40
Plan hau eguneratzeko prozesua	52
Ekintzen aurkibidea	53

Lege-oharra

Petronorrek 2015eko Iraunkortasun Planak Konpainiak diseinatutako eta garapen iraunkorra lortzeko bideratutako zenbait ekintza jasotzen ditu. Petronorrek Iraunkortasun Planean jasotzen diren ekintza guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, izan ere, legeak nahitaez agintzen ditu, eta borondatez bete ditzakeen gainerako ekintzak aldatzeko, atzeratzeko edo bertan behera uzteko eskumena du, horrek, Petronorren inolako erantzukizunik ekarri gabe.

© PETRONOR, S.A. 2015. Eskubide guztiak erreserbatuta. Dokumentu honen jabe bakarra Petronor, S.A. da eta debekatuta dago, indarrean dagoen legediak babestuta, osorik edo partzialki berregitea, baimenik ez badu salbu. Legea urratzen duena legez jazarriko dute, Espainian nahiz atzerrian. Dokumentua ikusi, berregin eta kopia daiteke, hedatzeko baino ez bada. Horretarako, dokumentuaren jabea nor den adierazi beharko da. Hala ere, beste helburu batzuetarako erabili nahi bada, edo aldatu nahi bada, PETRONOR S.A. enpresaren berariazko idatzizko baimena beharko da.

Erantzukizun korporatiboaren ikuspegia eta Plan hau egitea

Eragile politiko, sozial eta ekonomiko guztientzat garapen iraunkorra guztion erantzukizuna da, eta ekintza ausarta eskatzen du.

Petronorren eta Repsol bere holding enpresan enpresa handiek garapen iraunkorrerako egindako ekarpenentzat hartzen dugu erantzukizun korporatiboa. Guretzat, erantzukizun korporatiboaren funtza ingurumen- eta gizarte-gogoetak erakundeen erabakiak hartzeko prozesuetan txertatzea da.

Gure konpainian garapenean parte hartzen dugu, pertsonen funtsezko eskubideak gauza daitezen ezinbestekoa den energia hornituz.

Horrez gain, garapen hori iraunkorra izatea nahi dugu, gure erantzukizun korporatiboko ikuspegiaren bidez; hori da, hain zuzen, nahita hartzen dugun erantzukizuna. Erantzukizun hori, legez eska daitekeenera baino harago hedatzen da gure jarduerak gizartean eta ingurumenean izan ditzaketen eraginei dagokienez. Horrekin, gure alderdi interesdunek gure jardueraren inguruan dituzten itxaropenei erantzuten diegu, eragin positiboak handitzen eta negatiboak prebenitzen, arintzen edo orekatzen dituzten jarduerak garatuz.

Gure alderdi interesdunek gobernamentuarekin, giza eskubideen errespetuarekin, lan-jarduerekin, segurtasunarekin, ingurumeneko eraginekin, gure jardunbideen eta gure balio-kateko jardueren legezkotasunarekin zerikusia duten gaiet buruz dituzten itxaropenak identifikatu ditugu. Eta produktu eta zerbitzuen kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragiten dizkieten gaiekin eta bertako erkidegoetan sor daitezkeen eragin positibo eta negatiboekin zerikusia dutenei buruzkoak ere bai.


Itxaropen horiek identifikatzeko, orokorrean, nazioartean enpresa multinazional baten portaera onargarriztat hartzen dutenaren nazioarteko estandarren azterketan oinarritu gara.

Horrez gain, *itxaropenak identifikatzeko azterketa* bat edo gai garrantzitsuen azterketa bat egin dugu konpainiako alderdi interesdunentzat, maila korporatiboan, herrialde mailan eta ekintza-zentro mailan. Azterketak erakundearen gobernamentuari eta ingurumen- eta gizarte-kudeaketari (ESG) buruzko alderdietara mugatzen dira.

Nazioarteko estandarren itxaropenak identifikatzeko azterlanak aztertzeko eta finkatzeko prozesu baten ondoren, Petronorreko Kontseilari Delegatua buru den Petronorreko Erantzukizun Korporatibo Batzordearen barruan aztertu dira emaitzak. Batzorde horretako kideak dira herrialdeko negozio eta unitate korporatiboetako zuzendaritzako eta kudeaketako ordezkariak.

Ekitaldi honekin, Petronorreko alderdi interesdunen itxaropenak Konpainiako erabakiak hartzeko prozesuetan formalki eta sistematikoki sartzea lortu dugu, erantzukizun korporatiboaren funtsezkoa dena.

-ALDERDI INTERESDUNEN ITXAROPENAK KONPAINIAKO ERABAKIAK HARTZEKO PROZESUETAN SARTZEA-



Azterketa horren ondorioz 2015eko Iraunkortasun plan hau egin dugu. Dokumentu publikoa da eta urtero ebaluatuko dugu bere betetze-maila. Bestalde, gizarteari jakinaraziko diogu urteko jarraipen-txosten baten bidez.

Plan honek epe laburreko 68 ekintza ditu (2015), dagozkion txertatze-adierazleekin, aurreko taulan deskribatutako 10 programetatik bederatzitan taldekatuta, ISO 26000: Gizarte Erantzukizuneko Gida Nazioarteko Arauak deskribatzen duen erantzukizun korporatiboko funtsezko gaitan oinarrituta. Arlo horietan du edozein enpresak eragin etikoak, ingurumen-eta gizarte-eraginak sortzeko gaitasunik handiena.

Programen arabera, Partaidetza Aktiboko eta Erkidegoa, Ingurumena eta Segurtasuna Garatzeko programak izan dira ekintza gehien izan dituztenak:

**-PETRONORREKO 2015EKO IRAUNKORTASUN PLANAREN EKINTZEN BANAKETA,
JARDUERA-PROGRAMAREN ARABERA-**

Programa	Ekintza kopurua
Gobernamendua	3
Giza eskubideak	1
Lan-jarduerak	3
Segurtasuna	11
Ingurumena	19
Bidezko jardunbideak: Ustelkeriaren kontra eta etika	1
Bidezko jardunbideak: Balio-katea	2
Kontsumitzaileen gaiak	5
Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena	23

Petronorreko 2015eko Iraunkortasun plana ez da Repsol taldeak garapen iraunkorrari egindako ekarpen bakarra; Iraunkortasun Korporatiboko Planean kontuan hartutako ekintzekin eta gure Iraunkortasun planetan jasotzen diren zenbait herrialde edo jarduerazentzoei atxikitakoekin osatzen da.

Alderdi interesdunen itxaropenak eta planean dagozkien ekintzak

Programa 1

Erakundearen gobernamentua

Erakundearen gobernamentua erabakiak hartzen eta txertatzen dituen sistema da, bere helburuak lortzeko bideratuta. Beraz, elementu erabakigarria da erantzukizun korporatiboaren printzipioak barne hartzea eta horiek parte hartzen duten giro eta kultura bat sortzea.

Konpainiaren gobernu-organo nagusiarekin lotutako gaiak lantzen ditu; finantza, natura eta giza baliabideen erabilera eraginkorra; gardentasuna eta kontuak ematea; legea eta Konpainiaren barruko arautegia betetzea, hori guztia erakundeko liderren inplikaziorik eta konpromisorik handienarekin.

Gobernamenduaren esparruan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berriazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorrek beste hiru ekintza gehitu ditu Iraunkortasun plan honetan, eta bere helburua da itxaropen nagusiei emandako erantzuna indartzea, jarraian adieraziko den moduan.

-GOBERNAMENDU-PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

GOBERNAMENDU PROGRAMA

Itxaropena:

Lan egiten den inguruan komunikazio garden eta ohizko batean eragina izaten jarraitzea.

Itxaropena:

Herriko findegi bat izateak polemika sortzen du bizilagunen artean. Gehiengoa fabrikak ematen duen informazioaz fidatu arren, badaude alderdikoiak diren informazioak hedatzen dituzten taldeak.

Itxaropena:

Informazioa egokia eta gardena da baina egia da interesa duten taldeei hobeto egokitu ahal izango litzatekeela. Esfortzua egin daiteke, baina ulertzen dut ezinezkoa dela mundu guztiarengana iristea eraginkortasun maila berarekin.

Itxaropena:

Informazioa heterogeneoa izaten saiatzeko gara eta zailagoa egiten zaigu publiko ez teknikora iristea.

Itxaropena:

Konpainiari buruzko alderdi garrantzitsu guztiei buruzko informazio zehatzak argitaratuko direla bermatzea, zehaztutako epeen barruan.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Elkarrizketa prozesuak adostea hitzarmenak errazteko.
2. Gure jardueren berri ematea eskumena duten erakundeei.
3. Informazio garrantzitsuaren komunikazio publikoa hobetzen jarraitzea.

Orain, plan honen Gobernamendu programan jasotzen diren ekintzei buruzko berriazko informazioa emango dugu.

EKINTZA**Elkarrizketa-prozesuak hartzea akordioak errazteko.****DESKRIBAPENA**

Panel Publiko Aholkularietan (PPA) akordioak adosteko metodologia bat antolatuko dugu. PPA elkarrizketarako eta akordioak egiteko foro iraunkorra da. Hor, Petronor eta Interes Taldeen ordezkariak industria-komplexuaren eginkizunean eragiten duten alderdi nabarietara buruzko iritziak eta informazioa trukatzeko dute. Eztabaidatuko diren gaietan horretan zenbat denbora eman erabakiko da. Akordiorik lortu ezean, hurrengo saio edo bilerarako utziko da, informazio berria sartuz.

ADIERAZLEA

Eztabaidatuko den gai kopurua.

EKINTZA	Eskumeneko erakundeei gure jarduerak jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	Erakunde publikoei Petronorren dauden nobedadeak jakinarazten jarraituko dugu, ohi moduan eta gardentasunez. Gaur egun egiten dugun moduan, komunikazio arina izango dugu eskumeneko erakunde publikoekin, hurbil dauden Udalekin eta gainerako erakunde publikoekin, herritarrei berriak jakinarazteko, industria-istripu edo -gorabeherak gertatzen badira.
ADIERAZLEA	Erakunde publikoei egindako jakinarazpen kopurua.
EKINTZA	Informazio garrantzitsuaren jakinarazpen publikoa hobetzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Kanpoaldera gizarte-sareen, jakinarazpen ofizialen edo gure web-orriaren bidez egiten ditugun jakinarazpenak hobetzen jarraituko dugu, informazioa ahalik eta jende gehienari heltzeko.
ADIERAZLEA	Berri kopurua.

Programa 2

Giza eskubideak

Estatuek eta enpresek zeregin desberdinak dituzte giza eskubideen aldeko lanean. Lehenengoek eskubideak urratzen dituztenen aurrean babestu behar dituzte; bigarrenak, berriz, beren jardueretan errespetatu behar dituzte. Horren ondorioz, behar bezalako arduraz jardun behar da, pertsonak, horiek gozatzeko mailan eraginik ez izateko, eta gertatuko balira, eragin negatiboaz arduratzeko.

Programa honek barneko trebakuntzarekin, barneko eta kanpoko sentsibilizazioarekin eta giza eskubideekin zerikusia duen arautegia betetzearekin zerikusia duten ekintzak barne hartzen ditu; baita beste hauek ere: behar bezalako arduraz eta esfortzuak giza eskubideetan edozein eragin saihesteko; bertako biztanleen edo beste edozein talde ahulen eskubideen errespetua; erreklamazioei erantzutea eta gerta daitezkeen eraginak konpontzea.

Giza eskubideen esparruan alderdi interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horiei, esparru honetan Petronorren Iraunkortasun plan honetan barne hartu den ekintza bat gehitu behar zaie. Konpainiako alderdi interesdunen itxaropen nagusiei erantzuteko da.

-GIZA ESKUBIDEEN PROGRAMAN JASOTZEN DEN EKINTZA, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

GIZA ESKUBIDEEN PROGRAMA

Itxaropena:

Giza eskubide, eskubide sozial eta kulturalen eta hauek betetzearen alde dauden gobernu instituzio eta erakundeekin lan egitea kontutan hartzea.

Acción incluida en el programa:

1. Eskubide ekonomikoen, sozialen eta kulturalen alde dauden erakundeekin lan egitea.

Orain, plan honen Giza eskubideen programan jasotzen den ekintzari buruzko berariazko informazioa emango dugu.

EKINTZA	Eskubide ekonomiko, sozial edo kulturalak babesten dituzten erakundeekin lankidetzan aritzea.
DESKRIBAPENA	Bertan eta nazioartean solidaritatearen arloan lan egiten duten inguruko erakundeekin lankidetzan arituko gara. Laguntza humanitarioaz gain, gizarte eta hezkuntza alderdietan esku hartzea bultzatzen duten jardueri lehentasuna ematen diegu.
ADIERAZLEA	Batera finantzatutako proiektu kopurua.

Programa 3

Lan-jarduerak

Lan-jarduerak dira Konpainiak berak edo konpainiaren izenean egiten diren lanaren inguruko politikak eta jarduerak, hala nola lan-baldintzak; lanaldia; ordainsaria; langileen , garapena eta sustapena; langileen giza eta lan-eskubideak errespetatzea eta ez baztertzea; behartutako lana; haur lana; langileen transferentzia eta lekualdaketa; aniztasunaren eta lan-bizitzaren eta bizitza pertsonalaren arteko bateratzea sustatzea; lan-harremana, prestakuntza eta gaitasunen garapena amaitzea eta langileen osasuna.

Horrez gain, negoziazio kolektiboen, gizarte-elkarrizketen eta hiru alderdiko kontsuluten ordezkartzari eta partaidetzari buruzko gaiak barne hartzen dira, enpleguarekin zerikusia duten gizarte-arazoak aztertzeko.

Lan-jardueren esparruan alderdi interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horiei, Petronorrek Plan honen barruan sartu dituen hiru banakako ekintzak gehitu behar zaizkie. Ekintza horiek, konpainiako alderdi interesdunen itxaropen nagusietako batzuei erantzuteko da, orain adieraziko den moduan.

-LAN-JARDUEREN PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

LAN JARDUEREN PROGRAMA

Itxaropena:

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun-baldintzetan lan-aukera berdinak izateko eskubidea ziurtatzea, eta lan-kontuak aukeratzeko irizpide berak aplikatzea.

Itxaropena:

Komeni da barneko elkarrizketa arina izatea sindikatuen hurrengo hauteskudeei begira, kanpoko taldeetan eragina izan ditzaketen gatazkek saihesteko.

Itxaropena:

Enplegua emakumeentzat eta gazteentzat batik bat sortzea.

Itxaropena:

Politika formala ezartzea bazterkeria ezaren eta enplegu-aukeren berdintasunaren arloan.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Emakumeak sartzeko Petronorreko zuzendaritzan.
2. Barneko elkarrizketa arina izatea sindikatu-taldeekin.
3. Aukera-berdintasuna sustatzea.

Orain, plan honen Lan Jardueren Programan barne hartutako ekintza bakoitzari buruzko berriazko informazioa emango dugu, alfabetikoki sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Lan-baldintzak

EKINTZA

Emakumeak sartzea Petronorreko zuzendaritzan.

DESKRIBAPENA

Finketaren Kudeaketa Hobetzeko Plana integratuta, langileen eginkizunen egitura malguago eta eraginkorrago baterako bilakaeran oinarritzen dena, emakumeak sartu egin dira erakundearen aginte-lanpostuetan.

Helburua da garapen profesionaleko berdintasunezko estrategien bidez, bi sexuetako pertsonak orekatzea erakundearen egitura eta lanpostu guztietan.

ADIERAZLEA

Goi-karguetan dagoen emakume-kopurua.

Enpresaren eta langileen arteko elkarrizketa

EKINTZA

Barneko elkarrizketa arina izatea sindikatu-taldeekin.

DESKRIBAPENA

Laneko gatazkak ebazteko akordioa bideratzeko xedez, barneko elkarrizketa arina izango dugu sindikatu-talde desberdinekin. Horrela, planteamendu horiek, gure jardueraren industria-errealitatearen kontrako interes-taldeen argudiaketa elikatzea saihestuko dugu.

ADIERAZLEA

Lan-gatazka kopurua.

Aniztasuna eta bateratzea sustatzea

EKINTZA	Aukera-berdintasuna sustatzea.
DESKRIBAPENA	Garapen profesionala sustatzen dugu, esparru guztietan berdintasuna bermatuz, genero, kultura edo erlijioarengatik bazterkeriarik egin gabe. Horretarako, esparru publiko nahiz pribatuan jardunbide egoki moduan identifikatu diren bazterkeriazko ekintza positiboak aplikatuko dira.
ADIERAZLEA	Aniztasuna dagoela erakusten duten pertsona kopurua.

Programa 4

Segurtasuna

Segurtasuna alderdi kritikoa da industria-jardueretan, beraz, prebentzioa, kontrola eta mantentzea, berariazko kultura eta portaeren sustapenari gehitzen badiogu, funtsezko elementuak dira enpresa-jardueran.

Segurtasun-arriskuen prebentzioarekin eta arintzearekin zerikusia duten kontuak barne hartzen ditu, larrialdien kontrolak eta kudeaketa; gorabeheren eta ikasitakoaren berri ematea eta aztertzea; arautegia eta arloko kudeaketa-sistemak betetzea.

Horrez gain, beste hauek ere barne hartzen ditu: kultura eta lidergoaren bidez sustatutako segurtasun-portaerak, prestakuntza, komunikazioa eta sentsibilizazioa gai horietan; segurtasunarekin zerikusia duten gaiak gure merkataritza-harremanen esparruan, hala nola behar bezalako ardurak, kalifikazio-prozesuak, auditoretzak eta kontrolak, segurtasunean prestatzea, komunikazio- eta sentsibilizazio-kanpainak segurtasunaren arloan, gure merkataritza-harremanen taldeentzat.

Segurtasunaren esparruan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorrek hamaika ekintza barne hartu ditu Plan honetan, zenbait itxaropenei erantzuna emateko.

-SEGURTASUN-PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

SEGURTASUN PROGRAMA

Itxaropena:

Bizilagunek nahiko lukete jakitea zer egin behar den gertaera larri bat gertatuz gero.

Itxaropena:

Guretzat funtsezkoa da segurtasuna eta istripuen prebentzioa, gure itxaropenetako bat prebentzioa ahalik eta urrunen eramatea da.

Itxaropena:

Petronor inguruan bizi den jendeak gardentasuna eskatzen du eragina izan dezaketen jardueren inguruan eta hauek arintzeko neurri egokiak hartzea nahi dute.

Itxaropena:

Bizilagunek Petronorrek udal gobernuarekin bat egitea nahi dute, komunikazioa kudeatzeko findegiaren eraginez biztanleriak kaltetu ditzaketen gertaeren aurrean.

Itxaropena:

Petronorreko instalazioetako langileek segurtasun neurri propioek fabrikako funtzionamendu normalean eragina duten jarduerak arintzea nahi dute.

Itxaropena:

Biztanleen osasuna zaintzeko beharrezko neurri guztiak hartu behar dira, baita ingurumen talka ahalik eta txikiena izateko ere.

Itxaropena:

Arriskuen ebaluaketa dinamikoa izan behar dela eta Petronorren lan egiten dugun guztiok barne hartu behar dituela uste dugu.

Itxaropena:

Eraginkortasuna beharrezkoa da Petronorren eragiketetan, talkak eta igorpenak murrizteko.

Itxaropena:

Murriztapen prozedurak eta neurriak sartzea, hornikuntza kateko hornitzaile nagusiek langileen bizi-arriskuan jartzen duten egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko neurriak hartzen dituztela ziurtatzeko.

Itxaropena:

Hidrokarburu ihes bat modu kontrolatuan gelditzea esku hartze azkar eta eraginkor baten bidez gauzatzea eta gertatutakoa agintariei eta larrialdi zerbitzuei jakinarazteak larrialdiei aurre egiteko Petronorrek duen gaitasuna agerian uzten du.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Gure jokabidearen segurtasunari buruzko ikerketaren emaitzak.
2. Suteen eta larrialdien kontrako borrokari buruzko prestakuntza ematen jarraituko dugu.
3. Eguneroko jardueretan ekintza-segurtasuneko jarduerak gehitzea.
4. Inguruko herriei simulakroen berri ematea.
5. Segurtasun-jardueretan parte hartzea gure Taldeko beste unitate batzuekin.
6. Suteen kontrako defentsa-lehiaketetan parte hartzea.
7. Inguruko Udalei Autobabes Plana berrikusita aurkeztea.
8. Enpresa kontratistetan laneko segurtasuneko estandar handiak sustatzea.
9. Suteen kontrako parkearen ekipamendua indartzea.
10. Arriskuen ebaluazioa indartzea.
11. Kontratistaren segurtasunean aurrera jarraitzea.

Orain, fitxa horietan, plan honen Segurtasun Programan barne hartutako ekintza bakoitzari buruzko berariazko informazioa emango dugu, alfabetikoki sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Gure jokabidearen segurtasunari buruzko ikerketaren emaitzak.
DESKRIBAPENA	<p>Giza alderdia eta erakundearen portaera hobetuko ditugu, segurtasun-kulturan aurrera egiteko, kanpoko enpresa batek egindako segurtasunaren gogoetari eta hobekuntzari buruzko azterlanaren ondoren.</p> <p>Gaur egungo egoeraren ekintza-planak eta hobekuntza-politikak definituko ditugu, ikerketaren aurkikuntzekin lerrokatuta, portaeren oinarrian dauden emozio-balioen azterketan oinarritutako jokabide-segurtasuneko eredu berria ezartzen laguntzen baitute.</p>
ADIERAZLEA	Planaren aurrerapenaren ehunekoa.

Arriskuaren kudeaketa

EKINTZA	Suteen eta larrialdien kontrako borrokari buruzko prestakuntza ematen jarraituko dugu.
DESKRIBAPENA	<p>Sartzen diren langile berriak suteen kontrako borroka-tekniketan trebatuko ditugu, berariazko prestakuntza-instalazioetan eta suteen kontrako jarduera-eremuetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ispaster: Suteen kontra borrokatzeko teknika aurreratuetako Segurtasun arloko langileei. - Tepesa: Txanda-arduradunei eta goi-mailako kideei. - Senagosa: Petrokimiketan larrialdien kudeaketan eta koordinazioan trebatzeko.
ADIERAZLEA	PROA egin dutenen ehunekoa premiazko ikastaroetan.
EKINTZA	Eguneroko jardueretan ekintza-segurtasuneko jarduerak gehitzea.
DESKRIBAPENA	Instalazioetara eta produkzio-prozesuetara gehiago ohitzea, zerbitzuen hutsegiteen simulakroak eginez (hutsegite elektrikoa, lurrunaren hutsegitea, hozteko uraren hutsegitea eta abar).
ADIERAZLEA	<ul style="list-style-type: none"> - Industria-intzidente kopurua murriztea. - Urtero zerbitzuen hutsegiteen simulakroak egitea.

EKINTZA	Inguruko herriei simulakroen berri ematea.
DESKRIBAPENA	Inguruan antzeman daitezkeen alderdi guztiei buruzko informazioa emango dugu behar bezalako aurrerapenarekin; ohikoak ez diren jardueri buruzkoa batik bat.
ADIERAZLEA	Ohar kopurua simulakroak egin baino lehen.
EKINTZA	Segurtasun-jardueretan parte hartzea gure Taldeko beste unitate batzuekin.
DESKRIBAPENA	Aldizkako segurtasun-bilerak ezarriko ditugu gure enpresa-taldeko beste negozio-unitate batzuetako zentroekin, hala nola Santurtziko GLP zentroarekin, ezagutzak partekatzeko eta larrialdi-egoeretan elkarrekin jarduteko.
ADIERAZLEA	Egindako bilera-kopurua.
EKINTZA	Suteen kontrako defentsa-lehiaketetan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	MAPFRE GLOBAL RISK enpresak bi urtez behin enpresak berak bere asegurudunentzat antolatzen dituen Segurtasun eta Aseguruen Jardunaldi teorikoen barruan egiten dituen suteen kontra defendatzeko txapelketetan parte hartuko dugu. 2015. urtean Sueskolako praktika-eremuan egingo dira Ispasterren.
ADIERAZLEA	Probetan lortutako sarien ehunekoa.

EKINTZA	Inguruko Udalei Autobabes Plana berrikusita aurkeztea.
DESKRIBAPENA	Hala badagokio eguneratzeekin emango diegu inguruko udalei (Abanto, Muskiz eta Zierbena) Findegiko Autobabes Plan berrikusia. Plan horretan, egitura berriarengatik eta simulakroetan antzemandako hobekuntzak sartzeagatik geratu diren aldaketak jasotzen dira.
ADIERAZLEA	Udalen ehunekoa.

EKINTZA	Suteen kontrako parkearen ekipamendua indartzea.
DESKRIBAPENA	<p>Hauek dira egindako inbertsio-proposamenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 10.000 gpm-ko emari handiko monitore bat erostea. - Suteen kontrako kamioi bat berritzea, istripuetan esku hartzeko. <p>HYTRANS izeneko ponpaketa-ekipamendua eskuratuko dugu, malgutasun handiagoa izateko. Emari handiko ponpa bat, ura hornitzeko iturri berriekin erabiltzeko (spillpond, Terminal Marítima). Ekipamendu horiek, beharrezkoa bada, kanpoaldean erabil daitezke, inguruko udalerrietan uholdeen eraginak arintzen laguntzeko.</p>
ADIERAZLEA	Egindako inbertsioen ehunekoak.

EKINTZA	Arriskuen ebaluazioa indartzea.
DESKRIBAPENA	Arriskuen ebaluazioaren jakinarazpena indartuko dugu eta arrisku horiek modu dinamikoago baten bidez jakinaraziko dizkiegu Petronorreko langile guztiei.
ADIERAZLEA	Kexa kopurua.

Merkataritza-harremanak

EKINTZA	Laneko segurtasun-estandar handiak sustatzea enpresa kontratistetan.
DESKRIBAPENA	<ul style="list-style-type: none">- Nahitaezko gutxieneko segurtasun-estandarrik ezarriko ditugu.- Segurtasunean prestatuko dugu berariazko gaietan eta arriskueta.- Jarduera hobek eta ikasitako gaiak zabalduko ditugu parte hartzen duten enpresen artean lantokian.- Segurtasuna sustatuko dugu urteko bilerekin, sariekin, segurtasunaren eta ingurumenaren inguruko helburuekin.- Prestakuntza-ikastaroak antolatuko ditugu Laneko Segurtasunaren arloan, arautegiak berak nahitaez eskatutakoez gain.- Hornitzaileak OSHAS 18.001 arauari jarraitzea baloratuko dugu.
ADIERAZLEA	Mantentze-zerbitzuen hornitzaileei egindako OSHAS 18001 auditoretza kopurua.
EKINTZA	Kontratistaren segurtasunean aurrera jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Langileekin Petronorrekoaren antzeko segurtasun-sistema duten kontratistekin bakarrik jarraituko dugu lanean.
ADIERAZLEA	Istripu kopurua.

Programa 5

Ingurumena

Gizarteak gaur egun hainbat ingurumen-erronkari egin behar dizkie aurre: arazo orokorretatik, hala nola klima aldaketa edo natura-baliabideen agortzea, bertako beste arazo batzuetaraino. Hala ere, eragin oso handia izan dezakete gertatzen diren inguruan. Horien artean, airearen edo uren kutsadura, hondakinen sortzea edo ekosistemen eta biodibertsitatearen hondamena aipa litezke.

Enpresen jarduerak eragin horietako batzuetan laguntzen du, aldaketarik gabe. Garrantzi berezia dute kontu horiek petrolioaren sektorean, erauzketa- edo industria-jarduerak egiten direlako instalazio handietan. Horrenbestez, nahitaezkoa da enpresek aukerak identifikatzea, eragin horiek prebenitzeko, ezin badira saihestu txikiagotzeko, eta azken batean, zuzentzeko.

Aukera horiek barne hartzen dute arrisku eta eragin horiek prebenitzea eta arintzea, beharrezko kontrolen bidez, larrialdiak kudeatuz, jardueren eraginkortasunez, baliabide hidrikoak kudeatuz, hondakinak kudeatuz, materialen erabilera eraginkorra eginez, arautegia betez eta konpainiako ingurumena kudeatzeko sistemen bidez.

Halaber, klima-aldaketaren arintzearekin, ingurumenaren babesarekin eta biodibertsitatearekin zerikusia duten gaiak ere barne hartzen dira. Baita kultura baten sustapenarekin eta portaerekin zerikusia dutenak ere, lidergoaren, prestakuntzaren, komunikazioaren eta gai horiekiko sentsibilizazioaren bidez; behar bezalako arduraz gure merkataritza-harremanekiko, kalifikazio-prozesuen, auditoretza eta kontrolen bidez, ingurumenaren babesean prestatuz, komunikazio-kanpainak eginez eta ingurumenaren arloarekin sentsibilizatuz, eta abar.

Ingurumenaren esparruan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorrek hemeretzi ekintza barne hartu ditu Plan honetan, itxaropen horietako batzuei erantzuna emateko.

-INGURUMEN-PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

INGURUMEN PROGRAMA

Itxaropena:

Ingurumenarekin lotutako gaietan hobetu behar dugu arazoak eta kanpo-efektu negatiboak antzemateko sistemei dagokionez.

Itxaropena:

Ingurumenari dagokionez politika publiko erabilgarri eta eraginkor bat garatzen laguntzea, ekonomiari dagokionez, ingurumenarekiko sentsibilizazioa eta ingurumenaren babesa handiagotzen duten ekimenekin lankidetzaz hitzarmenak sustatuz.

Itxaropena:

Murriztapen neurriak eta ekintzak eta lanaren hobekuntza berrak hartzen duten ingurumen kudeaketa programak ezartzea, identifikatu diren eragiketetan ingurumen eta gizarte talka arriskuei aurre egiteko helburuarekin.

Itxaropena:

Petronor inguruan bizi diren biztanleek gardentasuna eskatzen dute eraginen bat izan dezaketen jardueretan, eta horiek murrizteko neurri egokiak har ditzagula nahi dute.

Itxaropena:

Itxaropena da Petronorrek gordin pisutsuen prozesua ingurumen-inpaktua murriztuz gauzatzea lortzea da.

Itxaropena:

Eusko Jaurlearitzak Petronorri findegia inguruan partikulen igorpena saihesteko neurri gehigarriak hartzeko eskatu dio.

Itxaropena:

URF proiektuarekin eta eraginkortasuna hobetzera bideratutako ekintzekin lotutako inbertsio erabakiak findegiko ingurumen-inpaktua murrizteko eta segurtasun baldintzak hobetzeko neurriekin batera hartu behar dira.

Itxaropena:

Ingurumen segurtasunari eta inguruan dagoen gizartearen osasunean eragina izan dezaketen edozein arrisku konpontzeari lehentasuna eman behar zaio.

Itxaropena:

Barbadun ibaiaren adarra Babes Berezikoko Eremu izendatu zen urriaren 16ko 215/2012 Dekretuaren bidez. Hori dela eta bertako balio naturalak babesteari lehentasuna eman behar zaio eta inguruko enpresen eta Petronoren ingurumen kudeaketa bikaina izan behar da.

Ingurumen programan jasotzen diren ekintzak:

1. Bioaniztasuna babestea.
2. Berotegi-efektuko gasak aztertzeko nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.
3. Ingurumen-ikuspegitik Petronorrek Muskizen duen jarduera kudeatzea.
4. Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioak identifikatzea.
5. Ekintzak gehituko ditugu zarata eta usainak ezabatzeko taldeetan.
6. Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioei buruz informatzea.
7. Ingurumen-inpaktua eragiketa maila guztietan murriztea.
8. Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioen inguruko informazioa ematea.
9. Ura Kudeatzeko Mapa bat egitea.
10. Hondakinen mapa bat egitea.
11. Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.
12. Kontsumoa eta lurrinaren ekoizpena murriztea.
13. CO₂ igorpenak murriztea.
14. Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.
15. Araztutako uraren kalitatea hobetzea.
16. Itsasoko ingurumenean izandako eraginak prebenitzea.
17. Estuarioan izan dezakeen eragina prebenitzea.
18. Aurrerapenak sustatzea Estatu mailan isurien kontrolean.
19. Findegia ikus-eragina zaintzen jarraitzea.

Orain, fitxa horietan, plan honen Ingurumen Programan barne hartutako ekintza bakoitzari buruzko berariazko informazioa emango dugu, alfabetikoki sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Biodibertsitatea

EKINTZA	Biodibertsitatea babestea.
DESKRIBAPENA	<p>“Gertaera Hasle Posibleak” (SIP) tresna kudeatuko dugu, aktibatzekotan, eragin batek ingurunean izan ditzakeen ondorio guztiak aztertzen dituena.</p> <p>Horren ezarpenarekin inguruko biodibertsitatean eragina izateko aukerak txikiagotzen dira.</p>
ADIERAZLEA	Gertaeraren probabilitatea txikiagotzeko ekintza kopurua.

Klima-aldaketa

EKINTZA	Berotegi-efektuko gasak aztertzeko nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.
DESKRIBAPENA	<p>Teknologikoki garatuta dagoen eta klima-aldaketaren kontrako borrokan proaktiboa den enpresa moduan, berotegi-efektuan dauden gasak aztertzeko nazioarteko korrelazioetan parte hartuko dugu.</p> <p>Korrelazio horiek, gure laborategiko saiakuntzetan aplikatzen dugun neurketa- eta azterketa-metodologiaren zorrotasuna erakusten dute. Alderaketa beste herrialdetan ospetsuak diren laborategietan egiten da.</p> <p>Korrelazio horietan, nazioartean ezagunak diren sozietateek parte hartuko dute.</p>
ADIERAZLEA	<ul style="list-style-type: none"> - Lortutako DIN akreditazio ziurtagiria. Horrek, adierazlearen % 50a ekarriko du. - Korrelazioan parte hartzea. Horrek, adierazlearen % 50a ekarriko du.

Kultura eta kudeaketa

EKINTZA	Ingurumen-ikuspegitik Petronorrek Muskizen duen jarduera kudeatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Ingurumen-kudeaketa sustatuko dugu Petronorreko instalazioetan eta haren inguruan:</p> <ul style="list-style-type: none">- Kultura hori bera erabiliko dugu Petronorren lan egiten duten enpresetan.- Arreta berezia jarriko diogu Barbadun ibaiaren kontserbazio-egoerari.
ADIERAZLEA	Barbadun ibaiaren kontserbazio-egoera.
EKINTZA	Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioak identifikatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Amaitu ditugu proiektuak aztertuko ditugu, Administrazioak ingurumena kontuan hartzen duten proiektutzat hartzen dituen alderdiak identifikatzeko [3032/2007 FORU AGINDUA, Ingurumen Saila].</p> <p>Administrazioak egindako ebaluazioak Petronorrek egiten dituen inbertsioekin duen ingurumen-konpromisoa erakusten dute.</p>
ADIERAZLEA	Urtero ixten diren eta berrikusten diren inbertsioen ehunekoa.

EKINTZA	Ekintzak gehituko ditugu zarata eta usainak ezabatzeko taldeetan.
DESKRIBAPENA	<p>Ingurumen-kudeaketaren etengabeko hobekuntzarekin jarraituko dugu. Jarduerak gehituko ditugu zarata eta usainak ezabatzeko taldeetan.</p> <p>Usain eta zaraten inguruan jasotako kexa guztiak diziiplina anitzeko taldeak aztertzen ditu. Denak aztertuta, haien jatorria ezabatu edo arin dezaketen inbertsioak edo jarduerak erabakitzen dira. Ekintza-plana osorik burututa, jatorririk nabarmenenak identifikatzen eta aztertzen jarraituko dugu.</p>
ADIERAZLEA	Amaitutako ekintza kopurua.
EKINTZA	Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioen inguruko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	<p>Findegiaren ingurukoei eta langileei Petronorrek ingurumena kontuan hartuz egindako inbertsioen berri emango diegu (Petronorrek web-orrian eta Gazteluberrin), ingurumenaren ikuspegitik legez eska daitekeenetik harago joateko itxaropenari erantzuna ematen saiatzeko.</p>
ADIERAZLEA	Argitalpen kopurua.

EKINTZA	Ingurumenaren eragina txikiagotzea jardueren maila guztietan.
DESKRIBAPENA	<p>Igorpen atmosferikoak, lurzoruaren izandako eragina, eta efluenteen isurpena kontrolatuko ditugu jardueren maila guztietan (produkzioa, balio-katea, produktuak), ingurumenak hurbileko inguruan dituen eraginak saihesteko.</p> <p>Informazio hori Ingurumena Zaintzeko Planean jasoko da. Plan hori urtero bidaltzen diogu Eusko Jaurlaritzari, Ingurumen Baimen Integratua (IBI) betetzeko.</p> <p>Interes-taldeei behar bezala helaraziko diegu. Horretarako, komunikabideak eta gizarte-sareak erabiliko ditugu, Panel Publiko Aholkulariek hori egiteko aukera ematen duten foroez gain.</p>
ADIERAZLEA	Ingurukoek alderdi horietan oinarrituz egindako kexa kopurua.
EKINTZA	Ingurumen Baimen Integratua betetzen den ala ez jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	<p>Eskumeneko erakunde publikoei Ingurumen Baimen Integratua etengabe betetzen den jakinaraziko diegu.</p> <p>Eraginak aritzen dituzten jarduerak agerraraziko ditugu. Halaber, usainak eta zaratak ezabatzeko taldeen ekintzak Panel Publiko Aholkularietan ere jakinaraz daitezke.</p>
ADIERAZLEA	Kexa kopurua.

Eraginkortasun operatiboa

EKINTZA	Ura Kudeatzeko Mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	<p>Ura kudeatzeko mapa bat garatuko dugu fintze-jardueretarako, egoera aztertzeke eta egon daitezkeen arriskuak baloratzeko. Hobetzeko esfortzuak hauek identifikatzeko izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baldintza arautzaileak: Aldaketa arautzaileetara egokitzea Europar Batasunean, erreferentziarik onenak moduan identifikatutako teknologiak aplikatzeagatik, Finketa BREF eta CWW, zenbait zentrotan muga berrietara egokitzeko finketa-hobekuntzak ekar ditzaketanak. - Uraren erabilera: Prozesuetan erabilitako ur kantitatearengatik eta igarotako urarengatik, zenbait erabilera ditu.
ADIERAZLEA	Ekoizpen sailak identifikatutako erabilera-adierazle guztiak (hala nola bildutako ura, berrerabilitakoa, erabilera eta abar) Emisphere aplikaziora eramatea.
EKINTZA	Hondakinen mapa bat egitea.
DESKRIBAPENA	<p>Produkzio-jardueren bidez sortutako Hondakinen Mapa bat egingo dugu, helburuak eta murrizketa-proiektuak definitzeko oinarritzko lerroa definitzeko balioko duena.</p> <p>2013. urtean proiektu honen lehen fasea egin zen, eta dagoen informazioarekin osatuko da, hondakinekin, kopuruarekin, arrisku-ezaugarriekin, hondakinen azken kudeaketarekin eta Findegiko jardueraren adierazgarritasunarekin lotutako kostuak bilduz.</p>
ADIERAZLEA	Segurtasun eta Ingurumen zuzendaritzari Konpainiako Hondakinen Mapa finkatzeko identifikatutako alderdi guztiak garaiz ematea [% 100].

EKINTZA	Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.
DESKRIBAPENA	<p>Petronorren eraginkortasun energetikoa hobetuko dugu. Horretarako, inbertsioak egin eta findegiko eragiketa-prozedurak aldatuko ditugu.</p> <p>Eraikinen aurreikusitako erreformetan funtsezkotzat jotzen dugu eraginkortasun energetikoa diseinu arkitektonikoetan.</p>
ADIERAZLEA	Igorpen kopurua eta intentsitate energetikoaren indizea.
EKINTZA	Kontsumoa eta lurrinaren ekoizpena murriztea.
DESKRIBAPENA	<p>Lurrinaren kontsumoa murriztuko dugu, eta horren ondorioz, lurrin-ekoizpena ere txikiagotuko da galdaretan eta kogenerazioetan. Horrela, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ur kontsumoa txikiagotuko dugu.</p>
ADIERAZLEA	Partzuergoaren ur kantitatea m ³ txikiagotzea aurreko urteen aldean.
EKINTZA	CO₂ igorpenak murriztea.
DESKRIBAPENA	<p>CO₂ Murrizteko Plana egiten jarraituko dugu. Plan horren bidez, ekintza eta inbertsio berriak abian jarriko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Lurrin-turbinen bidez mugitutako ekipamenduak ordezkatzeari; horien ordez, motor elektrikoak jartzen dira.- Erregai likidoaren ordez gas naturala erabiltzea.- Korrante bero tangentialak hobetzea eta aprobeztatzea, ACLren pump-around. <p>Ekintza horiek eta beste askok eraginkortasun energetiko handiagoa ekartzen dute, eta horren ondorioz, CO₂ murrizten da.</p>
ADIERAZLEA	IRCO ₂ .

Arriskuen eta ingurumen-inpaktuen kudeaketa

EKINTZA	Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean gerta daitezkeen inpaktuak aztertuko ditugu, proiektu desberdinen azterketa-fase bakoitzean, bai eraikuntza berriari bai daudenetan egiten diren aldaketei buruzkoetan.</p> <p>Era berean, irizpide horiek prozedura eta aldaketa berrietan ezarriko dira, nahiz eta garrantzirik gabekoa iruditu.</p>
ADIERAZLEA	HAZID kopurua.
EKINTZA	Araztutako uraren kalitatea hobetzea.
DESKRIBAPENA	<p>Findegiko ur-araztegiaren jarduera optimizatuko dugu, berreskuratzen dugun uraren eta itsasora isuritako soberakinaren kalitatea hobetzeko.</p> <p>Ekintzak birzirkulazioak txikiagotzeko dira. Horrela, arazketa-fase bakoitzean ahalmen eta egote-denbora handiagoa lortuko dugu. Isuritako uraren kalitatean eraginkortasun handiagoa lortuko dugu horrela.</p>
ADIERAZLEA	Uraren analitika, DQOn bereziki.

EKINTZA	Itsasoko ingurumenean izandako eraginak prebenitzea.
DESKRIBAPENA	<p>Ontzi-aldaketen zirkuituen lerrokatze zuzena ziurtatuko dugu zamalanetan eta lekualdaketatik Itsas Terminalean. Simulakro operatiboak egingo ditugu, euste-esparruak eta bestelakoak zabalduz, gutxienez urtean behin, txanda bakoitzeko.</p> <p>Langile guztiei itsas ingurunean izan dezakeen eraginaren berri emango diegu; baita isurik izan ditzaketen ondorio mediatiko ekonomikoaren berri ere.</p>
ADIERAZLEA	Isuri kopurua. Helburua isuririk ez gertatzea.
EKINTZA	Estuarioan izan dezakeen eragina prebenitzea.
DESKRIBAPENA	<p>Piezometroaren sarea kontrolatuko dugu. Horrela, akuiferoan eta aldameneko kontserbazio bereziko eremuan izan dezakeen eragina saihestuko dugu.</p> <p>Piezometroaren sarea etengabe zaintzen da eta aldizka berrikusten da, bai lurpeko uren kalitatea bai hura osatzen duten piezometroaren integritatea.</p>
ADIERAZLEA	Piezometro-sarearen kontrol kopurua.

EKINTZA	Aurrerapenak sustatzea Estatu mailan isurien kontrolean.
DESKRIBAPENA	Urtero laborategi arteko ekitaldi bat antolatu eta sustatuko dugu Estatu mailan isurien kontrolaren azterketari buruz. Horretan, goi-mailako laborategiek parte hartuko dute. Ekitaldiaren independentzia bermatzeko, kanpoko laborategi ospetsu bat kontratatuko da, eta korrelazioaren datuen kudeaketaz eta tratamenduaz arduratuko da. Datuak konfidentzialak izango dira eta laborategi kudeatzaileak bakarrik erabiliko ditu.
ADIERAZLEA	Laborategi arteko ekitaldia egitea.
EKINTZA	Findegiaren eragin bisuala zaintzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	Findegiaren eragin bisuala arintzen jarraituko dugu, egunero hobetuz. Zuhaitzez osatutako hesiaren ordeztu, hosto iraunkorreko zuhaitzak jarriko ditugu. Bulegoetarako eraikinak berritzeko proiektuak egingo ditugu, kontrol-aretoetan eta -1 eta 2. solairuetako aldageletan.
ADIERAZLEA	Egindako ekintza kopurua.

Programa 6

Bidezko jardunbideak: Ustelkeriaren kontra eta etika

Bidezko jardunbideak dira erakundeek beste batzuekin, hala nola bazkide, hornitzaile, kontratista, bezero, lehiakide, elkarte, agentzia eta gobernuen sailekin egiten dituzten transakzioak egiteko modua.

Erlazio horiek bidezko modu batean gara daitezen, enpresek beren jarduerak irizpideetara egokitu behar dituzte, hala nola ustelkeria prebenituz, eta horri buruzko politikak eta jarduerak ezarriz. Ziurtatu beharko dute liderrek konpromisoa, motibazioa eta gainbegiratzea ematea ustelkeriaren kontrako politikak erabiltzean; langileak prestatu beharko dituzte, eroskeria eta ustelkeria errotik kentzeko, eta gai horietan emandako aurrerapenengatik pizgarriak emateko; langile, bazkide eta hornitzaileei erakundearen politiken urratzei buruzko informazioa emateko; agintariei zigor-legearen urratzei buruzko informazioa ematea, eta erakundearekin jarduerak egiten dituztenak antzekoak egin ditzaten eskatzea.

Esparru honetan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak abian jarri ditu, eta haien funtzionamendua Konpainiaren web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorreko Iraunkortasun Planaren barruan, beste ekintza bat erantsi da esparru horretan, aipatutako zenbait aukerei erantzuna emateko, orain adieraziko den moduan.

-BIDEZKO ERAGIKETA-JARDUEREN PROGRAMAN BARNE HARTUTAKO EKINTZA: USTEKERIAREN KONTRA ETA ETIKA ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

BIDEZKO JARDUNBIDEEN PROGRAMA: USTELKERIAREN KONTRA ETA ETIKA

Itxaropena:

Kontratazioari dagokionez, beharrezko eginbidea egitea behar bezala dokumentatutako arriskuek babestuta, eta enpresako bazkideak etengabe eta behar bezala zaintzea.

Itxaropena:

Bazkide komertzialekin elkarrekiko konpromisoa aurkitzea.

Itxaropena:

Enpresako bazkideei Konpainiaren konpromisoen berri ematea nazioarteko eroskeriaren kontrako debekuei buruzko legeak onar ditzaten, baita Konpainiaren neurriak edo etika programa betetzea ere, eroskeria hori prebenitzeko eta antzemateko.

Acción incluida en el programa:

1. Hornitzaileek eta kontratistek iraunkortasunaren inguruan egindako jardueren jarraipena egitea.

Orain, fitxa moduan, bidezko eragiketa-jardueren programan barne hartzen den ekintzari buruzko berriazko informazioa emango dugu: plan honen ustelkeriaren kontra eta etika.

EKINTZA	Hornitzaileek eta kontratistek iraunkortasunaren inguruan egindako jardueren jarraipena egitea.
DESKRIBAPENA	Hornitzaileen homologazio eta jarraipen auditoretzetan Erantzukizun Sozial Korporatiboko printzipioekin lotutako alderdiak berrikusiko ditugu. Auditoretza horietan, barneko ziurtapen eta homologazio kontroleko sistemen funtzionamendua aldizka berrikusi eta ziurtatuko dugu. Homologazio-auditoretzak egingo ditugu. Petronorren eskaerak aipatutako esparruaren edozein arlotan betetzen ez dituzten enpresei zehapena jarriko zaie.
ADIERAZLEA	Irizpide hori barne hartuta baloratutako kontratu kopurua. Erantzukizun sozial korporatiboaren irizpideak betetzen dituzten hornitzaileak baloratuko ditugu.

Programa 7

Bidezko jardunbideak: Balio-katea

Bidezko jardunbideak dira erakundeek beste batzuekin, hala nola bazkide, hornitzaile, kontratista, bezero, lehiakide, elkarte, agentzia eta gobernuen sailekin egiten dituzten transakzioak egiteko modua. Erakunde baten jokabide etikoaren berezkoak dira, beste erakunde batzuekin egindako transakzioetan.

Enpresa saiatu behar da harreman horiek bidezko modu batean garatzea, bere erosketa, banaketa eta kontratazio politiketan irizpide etiko, gizarte- eta ingurumen-irizpideak erabiliz; beste erakundeei antzeko politikak erabil ditzaten animatuz; harremanetan dagoen erakundeen jarraipen egokia eginez; ETEei laguntza emateko aukera kontuan hartuz, sozialki arduratsuak diren helburuak betetzeko; erosketa-jarduera egokiak izanez, bidezko prezioak, entrega-epe egokiak eta kontratu egonkorrak.

Esparru honetan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berriazko kudeaketa-sistemak abian jarri ditu, eta haien funtzionamendua Konpainiaren web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorreko Iraunkortasun Planaren barruan, bi ekintza erantsi dira esparru horretan, aipatutako zenbait aukerei erantzuna emateko, orain adieraziko den moduan.

-BIDEZKO ERAGIKETA-JARDUEREN PROGRAMAN BARNE HARTUTAKO EKINTZAK: BALIO-KATEA ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

BIDEZKO JARDUNBIDEEN PROGRAMA: BALIO KATEA

Itxaropena:

Fabrikan pertsonak ditugun enpresok informazioa arinagoa izan behar genuke laneko zenbait ekintzek ustekabeen herrapa ez gaitzaten.

Itxaropena:

Unera arte, positiboa pertsonen kontratazioa eta bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremana izan da, eta ekimen hauek sustatzen jarraitzea espero dugu.

Itxaropena:

Kontratutako langileei dagokienez, enpresak arrazoizko ahalegin komertzialak egin behar dituzte langile hauek kontratatzen dituzten hirugarrenak legezko enpresak direla ziurtatzeko, aintzat hartutako osotasunarekin eta ingurumen eta gizarte kudeaketa sistema egokiarekin.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Gure kontratistei informazio erabilgarria ematea haien onurarako.
2. Gure kontratista eta hornitzaileen artean gizarte-erantzukizuna sustatuko dugu.

Orain, fitxa moduan, bidezko jardunbideen programan barne hartzen den ekintza bakoitzari buruzko berariazko informazioa emango dugu: Plan honen balio-katea.

EKINTZA	Gure kontratistei informazio erabilgarria ematea haien onurarako.
---------	--

DESKRIBAPENA	<p>Urtean findegian garatuko diren lan nagusiei buruzko informazioa emango diegu zuzenean enpresa kontratistei, beren baliabide-balioespenak egin ditzaten, eten datak, tanga plana, kontratatze inbertsio nagusiak eta berritzeko kontratu garrantzitsuak barne hartuz.</p> <p>Etenen kasuan, aurreikusitako lanen plangintzari eta Mantentze sailari ekipamenduak entregatzeko azken egunei buruzko informazioa emango dugu. Horrela, lanen plangintza errazagoa eta eraginkorragoa izango da kontratistentzat.</p>
--------------	---

ADIERAZLEA	Kexa kopurua.
------------	---------------

EKINTZA	Gure kontratista eta hornitzaileen artean gizarte-erantzukizuna sustatuko dugu.
---------	--

DESKRIBAPENA	<p>Kontratisten eta hornitzaileen homologazio-prozesuan, langileen lan-baldintzei buruzko alderdiak berrikusiko ditugu.</p> <p>Petronorreko erantzukizun sozialeko estandarrak jakinaraziko dizkiegu, eta antzeko estandarrak dituztenak baloratuko ditugu.</p> <p>Gure Taldeko beste zentro batzuetatik egiten diren homologazioek irizpide hauei ere jarraitzeko koordinatuko gara.</p> <p>Fundazioekin aliantzak ezarriko ditugu, enplegarritasun zaila duten pertsonen enplegua susta dezaten.</p>
--------------	--

ADIERAZLEA	Enpresen homologazio kopurua.
------------	-------------------------------

Programa 8

Kontsumitzaileen gaiak

Enpresek zenbait erantzukizun dituzte bere produktuak erosten dituzten edo zerbitzuak kontratatzen dituzten bezeroekin.

Horien artean nabarmentzen dira eskuratutako ondasunei buruzko informazio zehatza emateko beharra, produktuak erabiltzean osasuna eta segurtasuna bermatzea, arreta-zerbitzu eraginkorrak ematea eta merkataritza-transakzioetan bildutako datuen pribatutasuna babestea.

Enpresa-elkarteek beste helburu garrantzitsu batzuk bete ditzakete garapen iraunkor bat sustatzerakoan, hala nola ez dituen jendeari funtsezko zerbitzuak asetzen laguntzea -hori funtsezkoa da Repsol bezalako sektore energetikoaren konpainia batean-, eta kontsumo-eredu iraunkor baterako bilakaera ahalbidetzen duten produktuak edo informazioa sustatzea. Horrez gain, bezeroaren arretarako zerbitzuekin, kexa eta erreklamazioen ebazpenarekin eta laguntzarekin, eta datu pertsonalen babesarekin zerikusia duen guztia kontuan hartu beharko dute.

Kontsumitzaileen gaien esparruan alderdi interesdunen itxaropenei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Plan honen barruan, konpainiak bost ekintza barne hartu ditu esparru honetan, alderdi interesdunetan identifikatutako itxaropen nagusiei erantzuna emateko.

-KONTSUMITZAILEEN GAIEN PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

KONTSUMITZAILEEN GAIEN PROGRAMA

Itxaropena:

Kontsumitzaileek beren erabakiak ezagutzarekin hartu ahal izateko informazio zehatza, konparagarria eta garbia ematea (adib: prezioak eta edukia, erabilera segurua, mantenua, ondásun eta zerbitzuen biltegitratzea eta antolaketa).

Itxaropena:

Bezeroekin komunikatzeko orduan prezioei, ezaugarriei, baldintzei eta kostuei, kontratuaren iraupenari eta ezeztatze epeei buruzko informazio argia eta beharrezkoa ematen duten kontratuak erabiltzea.

Itxaropena:

Kontsumitzaileei ematen zaien informazioan nahasiak, gezurrezkoak, iruzurrezkoak edo bidegabeak diren praktikak ez erabiltzea, beharrezko informazio funtsezkoa ezkatuz.

Itxaropena:

Kontsumitzaileekin komunikatzeko orduan, produktu eta zerbitzuen eta entrega kostuen prezioak, zergak guztira, eta baldintzak jakinaraztea.

Itxaropena:

Kontsumitzaileek beren erabakiak ezagutzarekin hartu ahal izateko informazio zehatza, konparagarria eta garbia ematea.

Itxaropena:

Kexak aztertzea eta kexa horiei erantzuteko praktikak hobetzea.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Erregaien prezioaren aldaketaren inguruko mitoak eta egiak argitzea.
2. Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio oso, zehatz eta ulergarria ematea.
3. Kontsumitzaileei produktuen osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruzko informazioa ematea.
4. Kontsumitzaileei arriskuei eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea.
5. Bezeroen gogobetetzea hobetzea.

Orain, fitxa horietan, plan honen kontsumitzaileen gaien Programan barne hartutako ekintza bakoitzari buruzko berariazko informazioa emango dugu, alfabetikoki sailkatuta, taldekatu diren gaiaren arabera:

Bezeroaren arreta

EKINTZA	Bezeroen gogobetetzea hobetzea.
DESKRIBAPENA	<p>Repsol Butano, Asfalnor eta Esergi konpainietako bezeroak bisitatuko ditugu, egindako ekintza-planek gogobetetze-inkestetan jasotako itxaropenak kontuan hartzen dituzten egiaztatzeko.</p> <p>Bezeroek nabarmendutako alderdirik nabarmenenak dira produktuen kalitateari, kexen ebazpenari eta emandako arretari buruzkoak.</p> <p>Horrez gain, aplikatutako sistematikaren asmoa da prozesu eraginkorrak lortzea, ezarpen-maila handiarekin bezeroarekiko harremanean.</p>
ADIERAZLEA	Bezeroei egindako bisita kopurua.

Marketin arduratsua

EKINTZA	Erregaien prezioaren aldaketaren inguruko mitoak eta egiak argitzea.
DESKRIBAPENA	<p>Erregaien prezioaren aldaketan eragina duten alderdien berri emango dugu, gardentasunez, eta informazio osoa emanez.</p> <p>Informazio hori, publikoak Findegira egindako bisitetan erakusten den materialean jasoko da.</p>
ADIERAZLEA	Zerbitzu orokorrek antolatutako bisita kopurua.

Produktu eta zerbitzuen segurtasuna

EKINTZA	Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio oso, zehatz eta ulergarria ematea.
DESKRIBAPENA	<p>Hornitzen ditugun produktuen erabilera eta kontserbazio seguruari buruzko alderdi garrantzitsu guztien informazio oso, zehatz eta ulergarria emango dugu. Horrela, produktuaren kalitatearen integritate egokia bermatuko dugu, eskuratzen denetik erabiltzen den arte.</p> <p>Albaranetan produktuaren segurtasunari eta erabilerari buruzko datuak gehituko dugu, eta arreta berezia jarriko diegu eraikuntzaren arlokoei, hala nola asfaltoei.</p>
ADIERAZLEA	Gure produktuen bezero kopurua.
EKINTZA	Kontsumitzaileei produktuen osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruzko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	Taldeek findegira egindako bisitetan, kontsumo seguruan eta osasunean eragina duten alderdi garrantzitsuei buruzko informazioa emango dugu.
ADIERAZLEA	Kanpoko harremanen bidez artatutako bisita kopurua.
EKINTZA	Kontsumitzaileei arriskuei eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea.
DESKRIBAPENA	<p>Kontsumitzaileei produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa emango diegu, eta horrek dakartzan arriskuez ohartarazi.</p> <p>Produktua banatzaileei saltzeko dokumentazioan, fabrikatzen ditugun produktuen kontsumo seguru eta eraginkorreko baldintzei buruzko informazioa emango dugu.</p>
ADIERAZLEA	Produktua hornitzen zaien bezero kopurua.

Programa 9

Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena

Komunitatean egindako parte-hartze aktiboa alderdi interesdunen identifikaziotik eta erakundearen jarduerak ekar ditzaketen eraginen kudeaketan eta txikiagotzean haiekin izandako partaidetzatik abiatzen da.

Halaber, erkidegoaren partaidetza aktiboaren eta garapenaren bidez, enpresa gizarte-ondasuna bihur daiteke, hala ere, prozesu honetan, askotan, oso bestelakoak diren erkidegoren interesak daude, baina kontrajarriak daudenak ere, eta enpresak osorik baloratu behar ditu. Erantzukizun partekatua behar da erkidegoaren ongizatea helburu komun bat gisa sustatzeko. Enpresak erkidegoko talde ordezkariari kontsultatu beharko lieke gizarte-inbertsioaren lehentasunak finkatzean, talde ahulei arreta berezia jarritz. Erakunde batek tokiko garapenean lagun dezake, enplegua sortuz, erakundea eta tokiko hornitzaileen gaitasunak eta aukerak indartuz, kultura-, osasun-, gizarte- eta ingurumen-programen bidez.

Partaidetza aktiboaren eta erkidegoaren garapenaren esparruan alderdi interesdunen aukerei erantzuteko, Repsol taldeak berariazko kudeaketa-sistemak ditu, eta haien funtzionamendua bere web-orrian kontsulta daiteke **repsol.com**

Horrez gain, Petronorreko Iraunkortasun Planaren barruan, edizio honetan, hogeita hiru ekintza barne hartu dira erkidegoaren partaidetza aktiboaren eta garapenaren esparruan. Horien bidez, alderdi interesdunetan identifikatutako itxaropen nagusietako batzuei erantzun eman dakieke, orain adieraziko den moduan.

-ERKIDEGOAREN PARTAIDETZA AKTIBO ETA GARAPEN PROGRAMAN JASOTZEN DIREN EKINTZAK, ETA ERANTZUTEN LAGUNTZEN DUTEN ITXAROPEN NAGUSIEN LABURPENA-

ERKIDEGOAREN PARTE HARTZE AKTIBOKO ETA GARAPENENKO PROGRAMA

Itxaropena:

Euskal Herriko industria lider gisa Petronor industria laguntzailearentzat eragile ekonomiko garrantzitsua izaten jarraitzea espero da. Bereziki URF proiektuaren eta eraginkortasuna hobetzeko, segurtasuna areagotzeko eta lantegiaren eraginak murrizteko egin diren inbertsioen ondorioz.

Itxaropena:

Bertako enpleguaren alde egindako apustua saritzeko Bizkaia Saria jaso izana Petronorrek (Deia egunkariak emana), inguruan enplegua sortzen eta horretarako inbertsioak egiten jarraitzeko itxaropena ematen du.

Itxaropena:

Tokiko unibertsitateekin eta ikerkuntzako erakunde publikoekin harremanak garatzea eta tokiko enprekin edo erakunde profesionalekin lankidetzan ikerketa proiektuetan parte hartea.

Itxaropena:

Lehentasun handia du hezkuntza zentrotan lan egiteak maila guztietan, bekei, inbestigazioari, e.a. dagokionez.

Itxaropena:

Tokiko biztanleekin eta langileekin lan egitea ingurumen proiektu boluntarioetan, Muskizeko ingurunea berritzeko.

Itxaropena:

Itxaropena da Petronorrek inguruan inbertitzen eta bertan enplegua sortzen jarraitzea, batez ere geldialdietan.

Itxaropena:

Hezkuntza maila guztietan sustatzea eta laguntzak eskaintzea, eta hezkuntzaren kalitatea eta bertara sarbidea hobetzen duten ekintzetan parte hartzea, tokiko ezagutza sustatuz eta analfabetismoa desagerraraziz.

Itxaropena:

Eragiketetatik datozen diru-sarreraren zati bat tokiko erkidegoetako behar errealei aurre egiteko erabiltzea, hala nola, hezkuntza, osasuna eta enplegua.

Itxaropena:

Bizilagunek ikusten dituzten egoerei buruz egiten dituzten kezak edo deiak seriooki hartzea eta horiei buruzko informazio guztia ematea.

Itxaropena:

Petronorrek baztertutako taldeei laguntza eskaini beharko lieke, enpresa gisa bere intereserako baita, izan ere, bertako gizarteak findegian parte har dezake.

Itxaropena:

Oso positiboki baloratzen da klub eta erakundeak sustatzeko lana, inguruan erreferentzia izanik. Laguntza hau berdín mantentzea espero da.

Itxaropena:

Gazteei lana aurkitzen laguntzen dieten ekimenak behar dira inguruan.

Programan barne hartzen diren ekintzak:

1. Boluntarioak adoretzea eta laguntzea erkidegoaren onerako.
2. Enplegu-sorkuntzan inbertitzeko erabakien eragina aztertzea.
3. Beste produkzio-sektore batzuei laguntzea, lehen sektoreari nagusiki.
4. Tokiko ingurunearekin dagoen konpromisoa handitzen jarraitzea.
5. Enpleguari eusten eta tokiko enplegarritasuna handitzen laguntzea.
6. Inguruko biztanleen kezak ebaluatzea.
7. Bekak eskainiko ditugu tokiko herrietako ikasleentzat.
8. Lankidetzak sustatzea tokiko enpresa-erakundeekin.
9. Muskizko herria ingurumenaren arloan berritzea, tokiko boluntariotza sustatuz.
10. Hezkuntzaren sarbidearen eta kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.
11. Gizarte-inbertsio programekin jarraituko dugu inguruko herrietan.
12. Ikasleentzako praktikak eskaintzea.
13. Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitatei eta Lanbide Heziketako zentzoei.
14. Arreta berezia jartzea talde ahulei enpleguaren arloan.
15. Inguruarekiko harremanak indartzea Panel Publiko Aholkularien bidez.
16. Unibertsitateekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea.
17. Ingurutik jasotako ingurumenaren arloko iradokizunei edo kexei erantzutea.
18. Iraunkortasun Plan hau jakinaraztea.
19. Gure industria-mundua ezagutzera ematea.
20. Petronorrek altxor publikoari egindako ekarpenaren berri ematea.
21. Inguruko talde eta elkarteekin elkarriketa sustatzea.
22. Bisitak antolatzea Petronorreko instalazioetara interes-taldeetarako.
23. Komunikazioa indartzea inguruko herriekin.

Orain, fitxa moduan, plan honen erkidegoaren Partaidetza aktibo eta garapen programan barne hartutako ekintza bakoitzari buruzko berariazko informazioa ematen da, gaiaren arabera alfabetikoki sailkatuta.

Tokiko edukia

EKINTZA	Boluntarioak adoretzea eta laguntzea erkidegoaren onerako.
DESKRIBAPENA	Tokiko boluntarioen elkarteei lagunduko diegu, baliabide ekonomiko handiagoak eta materialak emanez. Horrela, inguruko tokiko erkidegoetan baliabide gehiago jarriko ditugu. Boluntario-talde horiek babes zibilarekin edo kultura eta gizarte arloko boluntarioekin lotu daitezke.
ADIERAZLEA	Diruz lagundutako jarduera kopurua, boluntarioen elkarteen ekimenei esker.
EKINTZA	Enplegu-sorkuntzan inbertitzeko erabakien eragina aztertzea.
DESKRIBAPENA	Tokiko enpleguan izandako eragina balioetsiko dugu Petronorrek instalazioetan egiten duen jarduera bakoitzean.
ADIERAZLEA	Inbertsioen bidez sortutako enplegu kopurua.

EKINTZA	Beste produkzio-sektore batzuei laguntzea, lehen sektoreari nagusiki.
DESKRIBAPENA	<p>Petronorren lurrak egituratuko ditugu, landa-kalifikazio moduan, enpresen lehen sektoreko autoenplegu-ekimenak bideratzeko. Jarduera-plan bat garatuko da erakunde publikoekin batera, lurzoru egokia erabili ahal izateko. Lur horiek Petronorrenak dira, eta hitzartutako eta berrikus daitekeen aldi baterako erabil dezaten lagako ditu.</p>
ADIERAZLEA	Autoenplegatu kopurua.
EKINTZA	Tokiko ingurunearekin dagoen konpromisoa handitzen jarraitzea.
DESKRIBAPENA	<p>Petronorretik hurbil dagoen lurraldearen garapenaren aldeko apustua egiten jarraituko dugu, gaur egun egiten ari garen moduan. Aliantzak eta lankidetzak garatuko ditugu beste produkzio-sektore batzuekin, hala nola lehen sektorearekin. Hori horrela, lankidetzan arituko gara beste erakunde batzuekin batera nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza esparruetan garapenarekin zerikusia duten proiektuetan.</p>
ADIERAZLEA	Petronor enpresari tokiko esparruan egindako jarduerak.

EKINTZA	Enpleguari eusten eta tokiko enplegagarritasuna handitzen laguntzea.
DESKRIBAPENA	<p>Konpromisoak mantenduko ditugu Tokiko Garapen Agentziekin eta tokiko hornitzaileen plan eragilearekin, inguruko biztanleentzako zuzeneko eta zeharkako lan-aukerak sortzeko. Somorrostroko Prestakuntza Eskolarekin lankidetzan arituko gara, praktiketarako ekipamenduak eskainiz, ikasketa-programaren gainean orientatuz eta kontratisten langileei prestakuntza ematea sustatuz.</p> <p>Antolatutako etenetan zehar, sortutako enpleguaren zati bat enplegu-kolokatasun egoeran dauden inguruko langileek hartzea saiaturiko gara.</p>
ADIERAZLEA	<ul style="list-style-type: none">- Muskizeko, Abantoko eta Zierbenako langile kopurua.- Muskizen, Abanton eta Zierbenan bizi diren enpresa kontratistetako langileen kopurua.
EKINTZA	Inguruko biztanleen kezkak ebaluatzea.
DESKRIBAPENA	<p>Eragiketen inguruan kokatuta dauden biztanleek gizarte, lan eta segurtasunaren arloetan dituzten kezkak ebaluatuko ditugu. Arlo horretan Panel Publiko Aholkulariek proposatzen dizkiguten ekintzak ezarriko ditugu. Gorabeherak egiazko informazioarekin bideratzeko beharrezkoa den informazioa emango dugu, teknizismoak erabiltzea saihestuz, ulergarriagoa izan dadin.</p>
ADIERAZLEA	Panel Publiko Aholkulariaren saio kopurua.

EKINTZA	Bekak eskainiko ditugu tokiko herrietako ikasleentzat.
DESKRIBAPENA	Inguruko lanbide-heziketako zentroetan ikasten duten ikasleei bekak ematen jarraituko dugu, finketaren sektorearekin lotutako familia profesionalen artean.
ADIERAZLEA	Emandako beka eta laguntza kopurua.
EKINTZA	Lankidetzak sustatzea tokiko enpresa-erakundeekin.
DESKRIBAPENA	Enpresa-lankidetzako elkarte bat sortuko dugu hornitzaileekin. Garapen-batzorde iraunkorra sortuko dugu, erabakitzeke kide anitzeko organo gisa, eta garatu beharreko alderdiak aztertuko ditugu, hala nola langatuen prestakuntza, enpresen eta hornitzaileen arteko lankidetzak eta abar. Somorrostroko Lanbide Heziketako Zentroa izan daiteke langileen enplegarritasuna handitzeko beharrezko eta berariazko prestakuntza ematen duen erakundea.
ADIERAZLEA	Atxikitako enpresa kopurua.
EKINTZA	Muskizko herria ingurumenaren arloan berritzea, tokiko boluntariorik sustatuz.
DESKRIBAPENA	Ingurumen-proiektuak egingo ditugu, Muskizko biztanleen eta Petronorreko langileen iritzia kontuan hartuz. Proiektu horiek, hurbil dagoen inguruan garatuko dira: Barbadun ibaian, La Arena hondartzan, estuarioko dunetan, itsas paduretan eta kostaldean. Ibaiak eta itsasoak ekarrita flotatzen ari diren materialak kenduko dira, landare-espezie inbaditzaileak edo ingurumen-sentsibilizazioko kanpainak.
ADIERAZLEA	Muskizen egindako Ingurumen Plan kopurua.

Gizarte-inbertsioa

EKINTZA	Hezkuntzaren sarbidearen eta kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.
----------------	---

DESKRIBAPENA	Hezkuntza arloko ekipamendu-proposamenak, ordenagailuak eta inguruko ikastetxeek eskatzen dizkiguten eta erakunde publiko autonomikoaren ardura ez diren bestelako material pedagogikoak finantzatuko ditugu.
---------------------	---

ADIERAZLEA	Ikastetxeekin egindako lankidetzak kopurua.
-------------------	---

EKINTZA	Gizarte-inbertsioko programekin jarraituko dugu inguruko herrietan.
----------------	--

DESKRIBAPENA	Erakundeen esparruan nagusiki ezagunak diren tokiko taldeek sustatutako jarduerak batera finantzatuko ditugu. Talde horien jardura-esparruak arlo hauetakoak dira: <ul style="list-style-type: none">- Kirola.- Kultura.- Hezkuntza eta gizartea.- Soziokomunitarioa.- Ludikoa.- Solidarioa, GKEak, fundazioak eta abar.
---------------------	---

ADIERAZLEA	Finantzatutako elkarte kopurua.
-------------------	---------------------------------

EKINTZA	Ikasleentzako praktikak eskaintzea.
DESKRIBAPENA	Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako zentroyen prestakuntza eta informazio eskaera aztertuko dugu, gizarterako zerbitzuaren irudia eta profesional berrientzako negozio-ikuspegi objektiboagoa agerraraziz. Horrela, gizarte-erantzukizun handiagoa lortuko dugu inguruarekin.
ADIERAZLEA	<ul style="list-style-type: none"> - Beka jasotako edo praktiketan aritutako pertsona kopurua (gutx. 1, geh. 3). - Artatutako eskaeren ehunekoa.
EKINTZA	Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako zentroyei.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitateen eta Lanbide Heziketako zentroyen prestakuntza eta informazio profesionaleko eskaerari erantzutea lortuko dugu. Bi lankidetzajarduera ezarriko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Petronorrerako bisitak eskainiko dizkiegu Lanbide Heziketako Zentroyei eta Unibertsitateei. - Prestakuntzajarduerak eta praktikak egingo ditugu prestakuntzaprofil horiek dituzten erakunde horietako ikasleekin. <p>Laborategia leku egokia da mota horretako jarduera tekniko-zientifikoak egiteko.</p>
ADIERAZLEA	Artatutako eskaeren ehunekoa.

EKINTZA	Arreta berezia jartzea talde ahulei enpleguaren arloan.
DESKRIBAPENA	Urteko kontratazio-helburuak ezarriko ditugu enplegu-zentro bereziekin eta industriako produktu eta zerbitzu osagarriekin. Positiboki baloratuko ditugu modu berean jarduten duten edo bestelako gaitasunak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten enpresak.
ADIERAZLEA	Enplegu-zentro bereziekin egindako kontratu kopurua.
EKINTZA	Inguruarekiko harremanak indartzea Panel Publiko Aholkularien bidez.
DESKRIBAPENA	Petronorretik hurbilen dagoen inguruarekiko harremanak sustatuko ditugu. Horretarako, gizarte-taldeak eta herritarrak lagunduko ditugu, sustatzen dituzten jardueretan lankidetzan parte hartuz. Panel Publiko Aholkulariak inguruarekin dagoen bi norabideko komunikazio-estrategiako beste foro bat dira, esparru eta jarduera guztietan.
ADIERAZLEA	Emandako laguntza kopurua.

Berrikuntza eta I+G

EKINTZA	Unibertsitateekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea.
DESKRIBAPENA	<p>Unibertsitatearekin eta teknologia-erakundeekin lankidetzak mantenduko ditugu, egiten dituzten ikerketetan laguntzeko, ingurumen- eta industria-gaietan nagusiki.</p> <p>Horren adibide moduan dugu azken 16 urteetan zehar Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Landareen Biologia eta Ekologia fakultatearekin batera egiten ari garen azterlana.</p> <p>Beste jarduera bat da etenaldietan gune konfinatuetan lan egiten duten pertsonentzako jarraipen-txartelak garatzea eta erabiltzea.</p>
ADIERAZLEA	Unibertsitateekin eta lankidetzaz-entzuekin izandako lankidetzak kopurua.

Partaidetza eta elkarrizketa

EKINTZA	Ingurutik jasotako ingurumenaren arloko iradokizunei edo kexei erantzutea.
DESKRIBAPENA	<p>Auzokoek antzematen dituzten eta konpainiak mota horretako ekintzetarako ezarritako protokoloa kontuan hartuz, informazio gehiago behar duten egoerei buruzko kexen edo deien % 100ari erantzutea lortuko dugu.</p> <p>Jatorria identifikatzen saiatuko gara, kexa berriro errepika ez dadin.</p>
ADIERAZLEA	Artatutako eskaeren ehunekoak.

EKINTZA	Iraunkortasun Plan hau jakinaraztea.
DESKRIBAPENA	Petronorren 2015eko Iraunkortasun Planean jasotzen diren ekintzen barneko eta kanpoko komunikazio plan bat egingo dugu, bi norabidekoa, konpainiaren alderdi interesdunentzat.
ADIERAZLEA	Iraunkortasun Planaren ekintza eta aurkezpen-ekitaldi kopurua.
EKINTZA	Gure industria-mundua ezagutzera ematea.
DESKRIBAPENA	Gure findegia ezagutzera emango diegu Muskizko biztanleei, gizarte zibileko elkarteei eta erakunde publikoei. Horretarako, informazio-panelak egingo ditugu, hitzaldiak emango ditugu eta foroak sortuko ditugu Muskizko biztanleen iritzi desberdinak ezagutzeko.
ADIERAZLEA	Egindako ekitaldi kopurua.
EKINTZA	Petronorrek altxor publikoari egindako ekarpenaren berri ematea.
DESKRIBAPENA	Petronorrek Foru Ogasunari eta Udalei ordaindutako zergei buruzko informazio zehatza emango diegu herritarrei, dagozkien aurrekontuekin alderatuz, Petronorrek egindako ekarpen handia nabarmentzeko. Zergei buruzko informazioaz gain, enpresa eragile moduan gure hornitzaileengan dugun eragin ekonomikoen berri ere emango dugu.
ADIERAZLEA	Hileko bisita kopurua.

EKINTZA	Inguruko talde eta elkarteekin elkarrizketa sustatzea.
DESKRIBAPENA	Elkarrizketa sustatuko dugu inguruko hainbat talde eta elkarterekin, zuzenean eta Panel Publiko Aholkularien bidez.
ADIERAZLEA	Bilera kopurua.
EKINTZA	Bisitak antolatzea Petronorreko instalazioetara interes-taldeetarako.
DESKRIBAPENA	Langileen senideentzako eta beste talde batzuentzako bisitak egiten jarraituko dugu, gaur egun egiten dugun moduan.
ADIERAZLEA	Bisita kopurua.
EKINTZA	Komunikazioa indartzea inguruko herriekin.
DESKRIBAPENA	Berariazko komunikazio-sistemak izango ditugu bertako erkidegoetarako. Web-orria erabiliko dugu bi norabideko komunikazio plataforma moduan Konpainiaren eta alderdi interesdunen artean. Sistema digitalez gain, ohiko baliabideak erabiliko ditugu: komunikabideak eta idatziz zabalduz.
ADIERAZLEA	Argitalpen eta informazio-orri kopurua. Gaztelu Berri aldizkaria eta Petronor Barria informazio-orriak izan daitezke erabilitako baliabideak.

Plan hau eguneratzeko prozesua

Iraunkortasun plan hau dokumentu dinamikoa da.

Urtero Plan hau osatzen duten ekintzen betetze mailaren berri emango dugu, jarraipen-txosten bat argitaratuz.

Bestalde, gure alderdi interesdunak kezkatzen dituzten itxaropenak edo gaiak aldakorrak direnez, eta urtean zehar gertatutako gertaeren bilakaeraren mende daudenez, Plan hau urtero eguneratuko da ekintza berriekin edo indarrean daudenak berriro eginez, egoera berrira egokitzeko.

Planaren geroko eguneratzeen ondorioz, hainbat ekintza burututa geratuko dira, gure Konpainiak garapen iraunkorrari egindako ekarpenak direnak.

Ekintzen aurkibidea

Lege-oharra	2
Erantzukizun korporatiboaren ikuspegia eta Plan hau egitea	3
Alderdi interesdunen itzaropenak eta planean dagozkien ekintzak	6
Programa 1: Erakundearen gobernamentua	6
Elkarrizketa-prozesuak hartzea akordioak errazteko.	7
Eskumeneko erakundeei gure jarduerak jakinaraztea.	8
Informazio garrantzitsuaren jakinarazpen publikoa hobetzen jarraitzea.	8
Programa 2: Giza eskubideak	9
Eskubide ekonomiko, sozial edo kulturalak babesten dituzten erakundeekin lankidetzan aritzea.	10
Programa 3: Lan-jarduerak	11
Lan-baldintzak	12
Emakumeak sartzea Petronorreko zuzendaritzan.	12
Enpresaren eta langileen arteko elkarrizketa	12
Barneko elkarrizketa arina izatea sindikatu-taldeekin.	12
Aniztasuna eta adiskidetzeara sustatzea	13
Aukera-berdintasuna sustatzea.	13

Programa 4: Segurtasuna	14
Kultura eta kudeaketa	16
Gure jokabidearen segurtasunari buruzko ikerketaren emaitzak.	16
Arriskuaren kudeaketa	17
Suteen eta larrialdien kontrako borrokari buruzko prestakuntza ematen jarraituko dugu.	17
Eguneroko jardueretan ekintza-segurtasuneko jarduerak gehitzea.	17
Inguruko herriei simulakroen berri ematea.	18
Segurtasun-jardueretan parte hartzea gure Taldeko beste unitate batzuekin.	18
Suteen kontrako defentsa-lehiaketetan parte hartzea.	18
Inguruko Udalei Autobabes Plana berrikusita aurkeztea.	19
Suteen kontrako parkearen ekipamendua indartzea.	19
Arriskuen ebaluazioa indartzea.	19
Merkataritza-harremanak	20
Laneko segurtasun-estandar handiak sustatzea enpresa kontratistetan.	20
Kontratistaren segurtasunean aurrera jarraitzea.	20
Programa 5: Ingurumena	21
Biodibertsitatea	23
Biodibertsitatea babestea.	23
Klima-aldaketa	23
Berotegi-efektuko gasak aztertzeke nazioarteko korrelazioetan parte hartzea.	23

Kultura eta kudeaketa	24
Ingurumen-ikuspegitik Petronorrek Muskizen duen jarduera kudeatzea.	24
Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioak identifikatzea.	24
Ekintzak gehituko ditugu zarata eta usainak ezabatzeko taldeetan.	25
Ingurumena kontuan hartzen duten inbertsioen inguruko informazioa ematea.	25
Ingurumenaren eragina txikiagotzea jardueren maila guztietan.	26
Ingurumen Baimen Integratua betetzen den ala ez jakinaraztea.	26
Eraginkortasun operatiboa	27
Ura Kudeatzeko Mapa bat egitea.	27
Hondakinen mapa bat egitea.	27
Instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea.	28
Kontsumoa eta lurrinaren ekoizpena murriztea.	28
CO ₂ igorpenak murriztea.	28
Arriskuen eta ingurumen-eraginen kudeaketa	29
Ingurumenean, osasunean eta segurtasunean izan ditzakeen eraginak ebaluatzea.	29
Arztutako uraren kalitatea hobetzea.	29
Itsasoko ingurumenean izandako eraginak prebenitzea.	30
Estuarioan izan dezakeen eragina prebenitzea.	30
Aurrerapenak sustatzea Estatu mailan isurien kontrolean.	31
Findegiaren eragin bisuala zaintzen jarraitzea.	31
Programa 6: Bidezko jardunbideak: Ustelkeriaren kontra eta etika	32
Hornitzaileek eta kontratistek iraunkortasunaren inguruan egindako jardueren jarraipena egitea.	33

Programa 7: Bidezko jardunbideak: Balio-katea	34
Gure kontratistei informazio erabilgarria ematea haien onurarako.	35
Gure kontratista eta hornitzaileen artean gizarte-erantzukizuna sustatuko dugu.	35
Programa 8: Kontsumitzaileen gaiak	36
Bezeroaren arreta	38
Bezeroen gogobetetzea hobetzea.	38
Marketin arduratsua	38
Erregaien prezioaren aldaketaren inguruko mitoak eta egiak argitzea.	38
Produktu eta zerbitzuen segurtasuna	39
Produktu eta zerbitzuei buruzko informazio oso, zehatz eta ulergarria ematea.	39
Kontsumitzaileei produktuen osasunaren eta segurtasunaren alderdiei buruzko informazioa ematea.	39
Kontsumitzaileei arriskuei eta produktuen erabilera egokiari buruzko informazioa ematea.	39
Programa 9: Parte-hartze aktiboa eta komunitatearen garapena	40
Tokiko edukia	42
Boluntarioak adoretzea eta laguntzea erkidegoaren onerako.	42
Enplegu-sorkuntzan inbertitzeko erabakien eragina aztertzea.	42
Beste produkzio-sektore batzuei laguntzea, lehen sektoreari nagusiki.	43
Tokiko ingurunearekin dagoen konpromisoa handitzen jarraitzea.	43
Enpleguari eusten eta tokiko enplegagarritasuna handitzen laguntzea.	44
Inguruko biztanleen kezkak ebaluatzea.	44
Bekak eskainiko ditugu tokiko herrietako ikasleentzat.	45
Lankidetzaren sustatzea tokiko enpresa-erakundeekin.	45
Muskizko herria ingurumenaren arloan berritzea, tokiko boluntarioritza sustatuz.	45

Gizarte-inbertsioa	46
Hezkuntzaren sarbidearen eta kalitatearen hobekuntzan parte hartzea.	46
Gizarte-inbertsioko programekin jarraituko dugu inguruko herrietan.	46
Ikasleentzako praktikak eskaintzea.	47
Bisitak eta mintegiak eskaintzea unibertsitateei eta Lanbide Heziketako zentzoei.	47
Arreta berezia jartzea talde ahulei enpleguaren arloan.	48
Inguruarekiko harremanak indartzea Panel Publiko Aholkularien bidez.	48
Berrikuntza eta I+G	49
Unibertsitateekin eta ikerketa-erakundeekin lankidetzan aritzea.	49
Partaidetza eta elkarrizketa	49
Ingurutik jasotako ingurumenaren arloko iradokizunei edo kexei erantzutea.	49
Iraunkortasun Plan hau jakinaraztea.	50
Gure industria-mundua ezagutzera ematea.	50
Petronorrek altxor publikoari egindako ekarpenaren berri ematea.	50
Inguruko talde eta elkarteekin elkarrizketa sustatzea.	51
Bisitak antolatzea Petronorreko instalazioetara interes-taldeetarako.	51
Komunikazioa indartzea inguruko herriekin.	51
Plan hau eguneratzeko prozesua	52
Ekintzen aurkibidea	53

Informazio gehiagorako <http://www.petronor.eus>

